

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Sei hilabetez jarraian behera egin ondoren, uztailan ere langabeziak behera egin du; 39.606 langabetu erregistratu dira

Azken hilabetean beste 52 pertsona hasi dira lanean, hau da, ekainarekin alderatuta, % 0,13 gutxiago daude lanik gabe

Asteartea, 2016.eko abuztuak 2

39.606 pertsona langabetu zenbatu dira Nafarroan iragan uztailaren amaieran. Hala, dagoeneko sei hilabetez segidan, behera egin du langabeziak. Jaitziera % 0,13koa bakarrik izan bada ere (52 pertsona) ekainarekin alderatuta, urte arteko datuei erreparatuta, datu positiboak dira, % 6,4 egin baitu behera (2.724 pertsona) 2015eko uztailarekin alderatuta.



Gazteen artean egin du behera langabeziak.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren behin-behineko balantzearen arabera, adin-talde guztietan jaitzi da langabetuen kopurua, baina gazteen artean batez ere. Gazte langabetuen kopurua txikiena da 2008tik. Azpimarratzekoa da, baita ere, lanik ez dutenen kopurua, 39.606, baxuena dela 2009tik aurrerako uztailari erreparatuta.

Gizarte-Segurantzako [afiliazioei](#) begiratuta, uztailan ekainean baino afiliatu gutxiago egon diren arren (1.019 gutxiago), positiboa da urte arteko joera, 2015eko uztailan baino 6.411 afiliatu gehiago baitaude.

Datu baikortzat baloratu ditu Eskubide Sozialetako Departamentuak, eta 2016ko beheranzko joera, 40.000 langabetu baino gutxiago egotea, kopuruaren eragin psikologikoa kontuan hartuta, eta gazteen langabeziaren igoera nabarmendu ditu. Hori guztia dela eta, departamentuak enplegua sustatzeko politika aktiboei eutsiko die, egungo langabetu-tasak arintzeko eta kalitate handiagoko lanpostuak, hots, gehienbat kontratu mugagabedunak, sortzeko.

Kontratazioa

Kontratazioaren aldetik, Foru Komunitateko lanpostuetarako kontratuen kopurua 31.789 izan da 2016ko uztailan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan erregistratutako datuen arabera. 7 kontratu gutxiago dira aurreko hilabetearekin konparatuta. Urteko datuetan, % 5,3 egin dute behera kontratuak 2015ko uztailaren aldean, hau da, 1.770 kontratu gutxiago siinatu dira. Modu baikorrean azpimarratu behar da jaitziera aldi

baterako kontratuetan gertatu dela, ia kasu guztietan (% 99), prekaritate handiagoko lanak izaten baitira.

Kontratu motetan, mugagabeko kontratuen kopuruak % 29,2 egin du behera ekaineko kopuruarekin alderatuta (408 kontratu gutxiago daude). Era berean, -% 1,6koa da urte arteko aldakuntza (19 kontratu gutxiago) 2015eko uztailleko kontratu mugagabeekin alderatuta. Kontratu mugagabeak gutxitu badira ere, aurtengo uztailleko kontratu mugagabeak azken hiru urteetako kopuruen antzekoak izan dira (% 3,7 aurtengoa, % 3,5 iaz, % 3,7 2014an eta % 3,7 2013an). Izan ere, uda eta Sanferminak direla eta, mota horretako kontratuak egiten dira.

Langabezia-datuaren banakapena

Enplegu-agentzietan, langabeziak behera egin zuen Agoitzen (-% 3,3), Tafallan (-% 3), Tuteran (-% 2,3), Lizarran (-% 0,6), Altsasun (-% 0,3), baina gora Donezteben (% 0,1), Zabalgunean (% 0,5), Arrotxapean (% 0,5), Yamaguchin (% 0,9) eta Lodosan (% 7,6).

Sexuari erreparatuta, 22.700 emakume daude langabezian (guztien % 57,3), eta % 0,6 egin du gora (148 emakume gehiago) ekaineko datuekin alderatuta. Gizonen kasuan, 16.906 langabetu daude (guztien % 42,7), eta % 1,2 egin du behera aurreko hilabetea kontuan hartuta (200 gizon gutxiago). Halaber, urteko aldakuntza aztertuz gero, desberdin dago banatuta langabezia: lanik gabeko gizonen kopuruak % 9,20 egin du behera, baina emakumeenak % 4,3. Edonola ere, krisialdia hasi zenetik, aurtengo jaitziera handienetariko bat izan da aurreko urtearekin alderatuta.

Adin-taldee begiratuta, tarte guztietan txikitu da lanik gabekoen kopurua, 25 eta 34 urte artekoetan izan ezik. 88 langabetu gehiago daude adin-tarte horretan (% 1,2 aurreko hilabetearekin alderatuta). 25 urtetik beherako langabetuen kopurua 3.814 da, 2008tik izan den kopururik txikiena; aurreko hilabetea joera bera izan da. Era berean, 17.725 dira 25 eta 44 urte arteko langabetuak (guztien % 44,7), ekaineko kopuruarekin konparatuta % 0,4 gehiago (79 pertsona). Bestalde, 45 urte edo gehiagoko langabetuak 18.067 dira (guztien % 45,6), hau da, aurreko hilabetearekin alderatuta, % 0,5 gutxiago (82 langabetu gutxiago).

Sektore ekonomikoak aztertuz gero, azpimarragarria da ia sektore guztietan jaitzi izana langabezia azken urtean. Eraikuntzan, % 21,2 egin du behera (741 pertsona gutxiago), industrian % 12,4 (785 pertsona), eta zerbitzuetan % 2,2 (571 pertsona). Aldiz, nekazaritzan 7 pertsona gehiago daude lanik gabe eta, beraz, % 0,3 igo da. Denboraldi horretan, enplegurik ez zutenen artean igo da langabezia (66 pertsona gehiago); hala ere, 73 gutxiago izan dira aurreko hilabetean. Jaitziera orokor hori oso positiboa da, aurreko hilabeteetako joera sendotzen duelako, eta beherakada ez delako zerbitzuen alorrekoa bakarrik (langabeziaren % 64,8 hartzen du).

Azpi-sektore ekonomikoetan, hiru azpi-sektoretan izandako langabeziaren txikitzea nabarmentzen da: osasun-jardueretan, txikizkako merkataritzan eta administrazio publikoan (86, 76 eta 74 pertsona gutxiago, hurrenez hurren). Hezkuntzan eta enpleguarekin erlazionaturako jardueretan, ordea, 618 eta 128 pertsona gehiago daude lanik gabe.

Ikasketa-mailari dagokionez, unibertsitateko ikasketak dituztenen langabezia % 11,6koa da eta bigarren hezkuntzako lehen mailara arteko prestakuntza dutenena % 69,8koa, langabetu guztiak kontuan hartuta. Unibertsitateko ikasketak dituzten biztanle langabetuen kasuan, aipatu beharra dago hamarretik zazpi emakumeak direla (% 73).